



## GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilak 7

Vitoria-Gasteiz, 7 de enero de 2020

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### GOBERNUAK **GARDENA** BERRITU DU, HERRITARREI BEREN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN INFORMAZIO GUZTIRA JOTZEKO AUKERA EMATEN DIEN GARDENTASUN-ATARIA

- Diseinu berria irisgarriagoa, errazagoa eta intuitiboagoa da, eta *smartphonetik* eta *tabletetatik* erabiltzeko pentsatuta dago
- Eusko Jaurlaritzak web-irisgarritasunean duen lidergo-posizioari eusteko lan egiten du

Josu Erkoreka Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio “**Gardena**” Eusko Jaurlartzaren gardentasuneko eta datuak ikusarazteko atari berria abian jarri duela. Webgunea berriro diseinatu da, eta, horrela, batik bat, herritarrek informazio publikorako duten irisgarritasuna hobetu nahi izan da.

Helburua da nahi duten pertsona guztiekin euskal administrazio publikoaren informazioa erraz, intuitiboki, edozein lekutatik, edozein ordutan eta edozein gailutatik jo ahal izatea. “**Gardena**” atari berria bereziki diseinatuta dago *smartphonetik* eta *tabletetatik* kontsultatzeko. Hala, diseinuak “*mobile first*” kontzeptua lehenetsi du; izan ere, erabileraren estatistikiek adierazten dute herritarren kontsulten % 30 dagoeneko gailu mugikorretatik egiten dela. Zifra horrek, gainera, gorantz doala egiaztatzen du.

Eusko Jaurlartzaren gardentasuneko eta datuak ikusarazteko atari berri hori euskal administrazio publikoaren [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) atarian dago.



### EUSKADI, ERREFERENTE WEB-IRISGARRITASUNEAN

Eusko Jaurlartzaren gardentasuneko eta datuak ikusarazteko atari berriak gardentasun-adierazleei buruzko 50 grafiko baino gehiago ditu; hala, herritarrek informazioa errazago ulertzeko bide ematen da. Gardentasunaren eta datu ireki eta berrerabilgarrien adierazleetara iristeko aukera hobetzeko helburua betetzen da.

Eusko Jaurlaritzak bere webguneen diseinuan duen lan-ardatz nagusietako bat da herritarrek informazioa jotzeko duten aukeran daukan lidergo-posizioari eustea. Hori horrela, Espainiako Gobernuaren “[Web Irisgarritasunaren Behatoki](#)”ak, 2019ko azaroan, honako hau argitaratu du: “*Euskal Autonomia Erkidegoko webgune guztiak irisgarritasun-eskakizunak betetzen ari dira;*

*eskakizun horiek guztiak betetzen dituen autonomia-erkidego bakarra da eta, beraz, Euskadi erreferentea da gai horretan”.*

## **GARDENTASUNA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA**

“*Gardena*” atari berriaren diseinua Eusko Jaurlaritzak gardentasunarekin, herritarren parte-hartzearekin eta gobernamendu onarekin duen konpromisoan sartzen da. Helburu hori betetzeko, Eusko Jaurlaritza sei ardatzetan ari da lanean:

- ✓ Eusko Legebiltzarrarekin elkarlanean jardutea *Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunaren eta Herritarren Parte Hartzearen Lege Proposamena* onesteko.
- ✓ Gardentasuna eta kontuak ematea sustatzea, publizitate aktiboaren eta informazio publikora jotzeko eskubidearen bermearen bidez.
- ✓ *Gobernamenduko, Gardentasuneko eta Herritarrek Parte Hartzeko Sailen Arteko Batzordearen* lanak finkatzea.
- ✓ Gardentasunaren arloan jardunbide egokiak partekatzeko erakundeen arteko elkarlana.
- ✓ “[\*Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria\*](#)”ren ekintzak eta konpromisoak abiarazteko aurrera egitea.
- ✓ Datu publikoen irekiera eta berrerabileraren sustapena areagotzea.

## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### **EKONOMIA ZIRKULARRAK % 26 MURRIZTUKO DITU CO2 EMISIOAK, ETA 3.000 ENPLEGU BERRI SORTUKO DITU EUSKADIN, 2030ERA ARTE**

- **Eusko Jaurlaritzak, gaur, Euskadiko Ekonomia Zirkularren Estrategia onetsi du; ondorio positiboak izango ditu, halaber, euskal enpresetan, izan ere, datozen 10 urteotan produktu zirkularretan 10.000 milioi euroko fakturazioa egon daitekeela aurreikusten da**
- **Estrategiak hiru helburu nagusi ezartzen ditu: % 30 handitzea produktibitate materiala; % 30 handitzea material zirkularren erabilera-tasa, eta % 30 murriztea BPGd-aren unitateko hondakinen sorkuntza-tasa**
- **Zabalkundea 4 eremuren eta 10 jarduketa-ildoren inguruan egingo da; haien datozen 5 urteotarako ekintza-planean sartuko dira, eta, plan horrekin batera, legeria berria, inbertsiorako eta I+G+b jarduerarako laguntzak, kenkari fiskalak eta ezagutzaren transferentzia garatuko dira, besteak beste**

Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebitzitzako sailburuak Euskadiko Ekonomia Zirkularren Estrategia aurkeztu du gaur; 2030era begira, Euskadi ekonomia zirkularreko eredura igarotzea sustatzeko eginkizuna du, bai eta Europaren erreferentziazko eskualde bilakatzekoa ere, eta, aldi berean, “espero du emaitza positiboak lortzea gure lurraldearentzat hiru eremutan: euskal enpresek produktu zirkularagoetan duten fakturazioa areagotzea, 10.000 milioi eurora arte; 3.000 enplegu sortzea ekonomia zirkularren eremuan, eta % 26 murriztea kontsumoari lotutako karbono-emisioak”.

Arriola sailburuak honako hau azaldu du: “2016an ekonomia zirkularreko irizpideak aplikatu dituzten produktu eta zerbitzuek eragindako fakturazioa 2.852 milioi eurokoa izan dela kalkulatzen da, eta enpresen fakturazio osoaren % 28 da”. Enpresek eginiko aurreikuspenek ekodiseinatutako produktu edo zerbitzuen salmenten hazkunza handia erakusten dute, bai termino absolutuetan, bai ehunekoetan, eta 7.250 milioi eurokoak izango dira 2020an. Etorkizuneko aurreikuspenek erakusten dute 2030ean produktuaren, zerbitzuaren edo prozesuaren berrikuntzen ondorioz sortutako 10.000 milioi euroak gaindituko direla; haien bidez, ingurumeneko eragina murriztea lortuko da, produktuaren bizi-zikloan.

Euskadiko Ekonomia Zirkularren Estrategiaren aplikazioak, halaber, zuzeneko eragina izango du lanpostuen sorreran. Negozio berrien garapenaren eta egungo enpresen lehiakortasunaren hobekuntzaren bidez, enplegu berriak

sortu ahalko dira, bai gaur egun dauden enpresetan, bai eredu-aldaketaren ondorioz sortutako konpainia berriean.

*“Gaur egun, Euskadiko industria-sektorean ekonomia zirkularren jarduerekin lotura duten 18.463 enplegu daude. Horrek esan nahi du euskal ekonomiako enplegu guztien % 2 baino pixka bat gehiago”,* esan du Arriolak. 2030era begira, helburua da zifra hori areagotzen jarraitzea, harik eta 3.000 enplegu berrira iritsi arte.

Hirugarrenik, Ekonomia Zirkularren Estrategiaren aplikazioak eragin zuzena izango du berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketan; horiek dira klima-aldaketaren eragileak. *“Urtean ia 1 milioi tona CO<sub>2</sub> murriztea aurreikusten da, dauden beste estrategiekin batera”*, esan du Ingurumen sailburuak; alegia, % 26ko murrizketa. Murrizketa hori hondakinen kudeaketako aldaketek eragingo dute, alegia, hondarren sorkuntzaren beherakadak eta ekonomiara bigarren mailako material gisa berriro sartzeak, eta baliabideen importazioaren murrizketak.

## Helburu estrategikoak

Emaitza horiek lortzeko, Euskadiko Ekonomia Zirkularren Estrategiak hiru helburu estrategiko ezartzen ditu:

1. % 30 areagotzea produktibitate materiala. Produktibitate materialak aukera ematen du ekonomia materialen hain mendeko ez den ekoizpen-eta kontsumo-eredurantz duen bilakaera neurtzeko. Hala, produktibitate material altuak baliabideen aprobetxamendu efizienteagoa dakar, produktuen balio erantsi handiagoa eta materialen importazioaren eta erauzketaren mendekotasun txikiagoa. Gaur egun, euskal industriak urtean 21 milioi tona lehengai kontsumitzen du, eta, haietatik, % 77 importatua da: nagusiki, erregai fosilak, mineral metalikoak, biomasa eta mineral ez-metalikoak. Materialaren produktibitatea aregoatuz, Euskadik hazkuntza ekonomikoa materialen kontsumotik banantzea bilatzen da.
2. % 30 areagotzea material zirkularren erabilera-tasa. Material zirkularren erabilera-tasak aukera ematen du Euskadin birziklatutako materialek materialen eskari osoari egiten dioten ekarpena neurtzeko, eta funtsezko elementua da ekonomiaren zirkulartasuna ebaluatzeko. Tasa hori areagotzeak dakar, importazioen mendekotasuna murrizteaz edo lehengaien erauzketa murrizteaz ez ezik, beste modu batera hondakindegia batean amaituko luketen hondakinak murriztea ere. Gaur egun, euskal industriak hondakinen guztizkoaren % 72 sortzen du; haietatik, % 42k hondakindegian amaitzen du. Bestalde, emisioak murrizteaz gainera, material zirkularren erabileraren handitzeak birziklapenaren sektorea eta hondakinak beste ekoizpen-prozesu batzuetan berrerabiltzeko haiek eraldatu eta aprobetxatzeari lotutako enpresen sorrera sustatuko ditu.
3. % 30 murriztea hondakinen sorrera-tasa BPGd-aren unitateko. Tasa horrek hondakinen sorkuntzaren inguruko jarduera ekonomikoaren

intentsitatea adierazten du, eta haren ekoefizientziaren neurria ematen du. Ekonomia zirkularrerako eredu-aldaketaren bidez, hazkuntza ekonomikoa materialen kontsumotik banandu nahi da, eta, horretarako, oso garantzitsua da, halaber, hazkuntza ekonomiko hori hondakinen sorreratik banantzea. Eskuragarri dauden azken datuen arabera (2016), Euskadin 67 kg hondakin sortu ziren (hondakin mineral nagusiak kanpoan utzita) BPGd-aren 1.000 euro bakoitzeko. 2030erako helburua da zifra hori 47,6 kg-ra jaistea.

Gainera, Estrategiak beste bi helburu ere gehitzen dizkio azken helburu horri, Europako Batzordeak lehenetsitako bi joerarekin lotuta: erdira murriztea elikagaien hondakinak eta plastikozko estalkien % 100 birziklagarriak izatea.

### Laguntzarako tresnak

Emaitzak lortzeko, eta hiru helburu estrategikoekin bat etorriz, Euskadiko Ekonomia Zirkularren Estrategia 4 eremuren inguruko (lehiakortasuna eta berrikuntza, ekoizpena, kontsumoa eta hondakinen eta bigarren mailako lehengaien kudeaketa) 10 jarduketa-ildotan zabaltzen da; horiek datozen 5 urteotarako ekintza-plan berezi batean sartzen dira. Ekintza-plan horrekin batera, administrazioak zenbait tresna jarriko ditu abian, eta haien honako hauekin dute zerikusia: hondakinen joera batzuetarako berezko legegintzaren garapena; inbertsiorako laguntzak, bereziki hondakinen kudeaketako, ekoizpen-efizientziako eta negozio berrietako azpiegituraren; I+G+b jarduerarako laguntzak; kenkari fiskalak; ingurumeneko tasak eta zergak; estandar teknikoen eta metodologien garapena, bigarren mailako materialen erabilerari bide emateko, eta ezagutzaren gaikuntza, sorkuntza eta transferentzia, besteak beste.

*“Ibilbide luzea dugu egina, eta Euskadik, gaur egun, leku nabarmena du ekonomiaren ikuspegি zirkularren garapen aplikatuaren, bereziki industriaren eremuan”, esan du Iñaki Arriolak. “Erakutsi dugu ekonomikoki hazi eta materialen kontsumoan murriztu daitekeela. 2000. urtetik, euskal BPGd-a % 26 hazi da, eta materialen kontsumoa % 25 murriztu da, eta hondakindegietan amaitzen duten hiri-hondakinen bolumena % 56 murriztu da”.*

Ingurumen sailburuak, halaber, honako hau nabarmendu du: *“gure ekonomia materialen kontsumotik eta hondakinen sorkuntzatik banantzen ari da, ekonomia zirkularren neurriak sustatzen ari baitira”*. Eta honako hau ziurtatu du: *“gaur aurkeztu dugun 2030erako Euskadiko Ekonomia Zirkularren Estrategiak hainbat aukera irekitzen dizkigu eta haien, ageriko ingurumen-onurak ekartzeaz gainera, aukera emango dute, halaber, ekonomia modernizatu eta eraldatzeko, enpresentzako onura ekonomikoak sortzeko eta haien lehiakortasuna areagotzeko, energia- eta lehengai-aurrezpen handiak lortzeko, hondakinen kudeaketa hobetzeko, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta toki-eremuan lanpostuak sortu eta gizarte-integraziorako aukera berriak sortzeko”*.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL GOBIERNO RENUEVA [GARDENA](#), EL PORTAL DE TRANSPARENCIA QUE PERMITE A LA CIUDADANÍA ACCEDER A TODA LA INFORMACIÓN DE SU ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

- El nuevo diseño es más accesible, sencillo e intuitivo, y está pensado para su uso móvil desde smartphones y tablets
- El Gobierno Vasco trabaja para mantener su posición de liderazgo en accesibilidad web

El Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, Josu Erkoreka, ha informado al Consejo de Gobierno de la puesta en marcha de “[Gardena](#)”, el nuevo portal de transparencia y visualización de datos del Gobierno Vasco. Se trata del rediseño del sitio web que permite mejorar, sobre todo, la accesibilidad de la ciudadanía a la información pública.

El objetivo es que todas las personas que lo deseen puedan acceder a la información de la Administración Pública Vasca de una manera sencilla, intuitiva, desde cualquier lugar, a cualquier hora y desde cualquier dispositivo. De hecho, el nuevo portal de “[Gardena](#)” está especialmente diseñado para su consulta y acceso desde smartphones y tablets. Así, el diseño ha priorizado el concepto “mobile first” ya que las estadísticas de uso indican que el 30% de las consultas ciudadanas se realizan, ya, desde dispositivos móviles. Cifra que, además, se constata que va en aumento.

Este nuevo sitio web de la transparencia y visualización de datos del Gobierno Vasco está alojado en el portal de la Administración Pública Vasca, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus).



### EUSKADI, REFERENTE EN ACCESIBILIDAD WEB

El nuevo portal de la transparencia y visualización de datos del Gobierno Vasco cuenta con más de 50 gráficos sobre los indicadores de transparencia de manera que se facilita a la ciudadanía la compresión de la información. Cumple el objetivo de mejorar la accesibilidad a los indicadores de la transparencia y los datos abiertos y reutilizables.

Uno de los ejes prioritarios de trabajo del Gobierno Vasco en el diseño de sus sitios web es mantener la posición de liderazgo en materia de accesibilidad ciudadana a la información. En este sentido, el [“Observatorio de Accesibilidad Web”](#) del Gobierno español ha publicado, en noviembre de 2019, que Euskadi

es “la única Comunidad Autónoma en la que todos sus sitios web propios están cumpliendo los requisitos de accesibilidad y, por tanto, Euskadi es un referente en esta materia”.

## TRASPARENCIA Y PARTICIPACIÓN CIUDADANA

El diseño del nuevo portal, “[Gardena](#)”, forma parte del compromiso del Gobierno Vasco con la transparencia, la participación ciudadana y la buena gobernanza. Para alcanzar este objetivo, el Ejecutivo vasco está trabajando en seis ejes:

- ✓ Colaboración con el Parlamento Vasco para aprobar la *Proposición de Ley de Transparencia y Participación Ciudadana de la Comunidad Autónoma de Euskadi*.
- ✓ Impulso a la transparencia y a la rendición de cuentas, a través de la publicidad activa y la garantía del derecho de acceso a la información pública.
- ✓ Consolidación de los trabajos de la *Comisión Interdepartamental de Gobernanza, Transparencia y Participación Ciudadana*.
- ✓ Colaboración interinstitucional para compartir las buenas prácticas en materia de transparencia.
- ✓ Avanzar en la puesta en marcha de las acciones y compromisos del “[Libro Blanco de Democracia y Participación ciudadana de Euskadi](#)”.
- ✓ Ampliar la apertura y promoción de la reutilización de datos públicos.

## Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

### LA ECONOMÍA CIRCULAR REDUCIRÁ UN 26% LAS EMISIONES DE CO2 Y GENERARÁ 3.000 NUEVOS EMPLEOS EN EUSKADI HASTA 2030

- El Gobierno Vasco ha aprobado hoy la Estrategia de Economía Circular de Euskadi, que también tendrá efectos positivos para las empresas vascas, ya que estima que puedan llegar a los 10.000 millones de euros de facturación en productos circulares en los próximos 10 años
- La Estrategia fija tres grandes objetivos: aumentar un 30% la productividad material, aumentar un 30% la tasa de uso de materiales circulares y reducir un 30% la tasa de generación de residuos por unidad de PIB
- El despliegue se realizará en torno a 4 ámbitos y 10 líneas de actuación, enmarcadas en un plan de acción para los próximos 5 años, que lleva aparejado desarrollo de nueva legislación, ayudas para inversión e I+D+i, deducciones fiscales y trasferencia de conocimiento, entre otras medidas

El Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco, Iñaki Arriola, ha presentado hoy en el Consejo de Gobierno la Estrategia de Economía Circular del País Vasco que, con un horizonte a 2030, tiene la misión de impulsar la transición de Euskadi hacia un modelo de economía circular y posicionarse como una región referente en Europa, al tiempo que “espera lograr resultados positivos para nuestro territorio en tres ámbitos: aumentar la facturación de las empresas vascas en productos más circulares hasta los 10.000 millones de euros, crear 3.000 empleos en el ámbito de la economía circular y reducir un 26% las emisiones de carbono asociadas al consumo”.

El Consejero Arriola ha explicado que “*la facturación generada por productos y servicios que han aplicado criterios de economía circular en 2016 se estima en 2.852 millones de euros y representa un 28% de la facturación total de las empresas*”. Las previsiones aportadas por las empresas relevan un fuerte crecimiento de las ventas de productos o servicios ecodiseñados, tanto en términos absolutos como porcentuales, que alcanzarán los 7.250 millones de euros en 2020. Las previsiones a futuro apuntan a que en 2030 se superarán los 10.000 millones de euros generados como consecuencia de innovaciones de producto, servicio o proceso, mediante las que se logrará reducir el impacto medioambiental a lo largo del ciclo de vida del producto.

La aplicación de la Estrategia de Economía Circular de Euskadi también tendrá repercusión directa en la generación de puestos de trabajo. El desarrollo de nuevos negocios y la mejora competitiva de las empresas actuales permitirá la

creación de nuevos empleos, tanto en las empresas existentes en la actualidad como en nuevas compañías surgidas como fruto del cambio de modelo.

*“En la actualidad, en el sector industrial de Euskadi existen 18.463 empleos relacionados con actividades de economía circular. Esto supone algo más de un 2% del total de empleos de la economía vasca”,* ha apuntado Arriola. El objetivo de cara a 2030 es continuar aumentando esa cifra hasta alcanzar los 3.000 nuevos empleos.

En tercer lugar, la aplicación de la Estrategia de Economía Circular tendrá un impacto directo en la reducción de emisiones de gases de efecto invernadero, causantes del cambio climático. *“Se espera una reducción anual de casi 1 millón de toneladas CO2 equivalentes, a sumar al resto de estrategias existentes”*, ha señalado el consejero de Medio Ambiente, lo que supone una reducción del 26%. Esta reducción vendrá originada por los cambios en la gestión de residuos, es decir, el descenso en la generación de desechos y el aumento de su reincorporación a la economía como materiales secundarios, y por la disminución de la importación de recursos.

### Objetivos estratégicos

Para lograr estos resultados, la Estrategia de Economía Circular de Euskadi fija tres objetivos estratégicos:

1. Aumentar en un 30% la productividad material. La productividad material permite medir la evolución de la economía hacia un modelo de producción y consumo menos dependiente de los materiales. De esta manera, una productividad material alta representa un aprovechamiento más eficiente de los recursos, un mayor valor añadido de los productos y una menor dependencia de la importación y extracción de materiales. En la actualidad, la industria vasca consume 21 millones de toneladas de materias primas al año, de las que un 77% son importadas: principalmente, combustibles fósiles, minerales metálicos, biomasa y minerales no metálicos. Aumentando la productividad material, Euskadi busca desacoplar el crecimiento económico del consumo de materiales.
2. Aumentar en un 30% la tasa de uso de material circular. La tasa de uso de material circular permite medir la contribución de los materiales reciclados en el País Vasco a la demanda total de materiales y representa un elemento clave para evaluar la circularidad de la economía. Aumentar esta tasa implica no sólo rebajar la dependencia de las importaciones o la extracción de materias primas, sino reducir los residuos que, de otra manera, acabarían depositados en un vertedero. En la actualidad, la industria vasca genera el 72% del total de los residuos, de los cuales un 42% acaban en vertedero. Por otro lado, además de reducir emisiones, el aumento del uso de material circular impulsará el sector del reciclaje y la aparición de empresas ligadas a la transformación y aprovechamiento de residuos para su reutilización en otros procesos productivos.

3. Reducir en un 30% la tasa de generación de residuos por unidad de PIB. Esta tasa expresa la intensidad de la actividad económica en generación de residuos y proporciona una medida de su ecoeficiencia. El cambio de modelo hacia una economía circular busca desacoplar el crecimiento económico del consumo de materiales, y para ello es igualmente importante desacoplar también ese crecimiento económico de la generación de residuos. Según los últimos datos disponibles (2016), en Euskadi se generaron 67 kg de residuos (excluidos los principales residuos minerales) por cada 1.000 euros de PIB. El objetivo a 2030 es bajar esa cifra a 47,6 kg.

Adicionalmente, la Estrategia recoge dos objetivos complementarios a este último objetivo en relación con dos de las corrientes priorizadas por la Comisión Europea, que son: reducir a la mitad la generación de desperdicios alimentarios y lograr que el 100% de los envases de plástico sean reciclables.

### Instrumentos de apoyo

Para conseguir los resultados, y en línea con los tres objetivos estratégicos, la Estrategia de Economía Circular de Euskadi se despliega en 10 líneas de actuación en torno a 4 ámbitos (competitividad e innovación, producción, consumo, y gestión de residuos y materias primas secundarias), enmarcados en un Plan de Acción específico para los próximos 5 años. Dicho Plan de Acción lleva aparejado la puesta en marcha de una serie de instrumentos por parte de la Administración, que tienen que ver con desarrollo de legislación propia para determinadas corrientes de residuos; ayudas a la inversión, especialmente en infraestructuras de gestión de residuos, eficiencia productiva y nuevos negocios; ayudas para I+D+i; deducciones fiscales; tasas e impuestos ambientales; desarrollo de estándares técnicos y metodologías para facilitar la utilización de materiales secundarios; y capacitación, generación y transferencia de conocimiento, entre otras medidas.

*“Llevamos un largo camino recorrido y Euskadi ocupa hoy una posición destacada en el desarrollo aplicado de la visión circular de la economía, especialmente en el ámbito industrial”, ha afirmado Iñaki Arriola. “Hemos demostrado que se puede crecer económicamente y reducir el consumo de materiales. Desde el año 2000, el PIB vasco ha crecido un 26%, mientras que el consumo de materiales se ha reducido un 25% y el volumen de residuos urbanos que termina en vertederos ha disminuido en un 56%”.*

El consejero de Medio Ambiente también ha subrayado que *“nuestra economía se está desacoplando del consumo de materiales y la generación de residuos mediante el impulso de medidas de economía circular”*. Y ha asegurado que *“la Estrategia de Economía Circular de Euskadi 2030 que presentamos hoy nos abre un abanico de oportunidades que, además de los beneficios ambientales evidentes, también permitirá modernizar y transformar la economía, generar beneficios económicos para las empresas y aumentar su competitividad, lograr importantes ahorros de energía y materias primas, mejorar la gestión de los residuos, reducir las emisiones de gases de efecto invernadero, y crear puestos de trabajo en el ámbito local y nuevas oportunidades para la integración social”*.

## Salud